

Tratu onen aldeko Ermuko I. Selfie Lehiaketarako oinarriak

1. Lehiaketaren helburua da Ermuko herritarrak tratu onen alde sentibilizatzeko, batez ere 14 eta 20 urte bitarteko gazteak, eta bereziki jai-giroetan. Gainera, bizitzako eremu guztietan tratu onen alde konpromisoa har dezatela lortu nahi da, eraso eta/edo jokabide matxista edo sexisten aurrean "zero tolerantzia" erakuts dezaten, emakumeen kontra, bakarka zein taldeka, ikusten duten edozein eraso-mota salatuz.
2. Ez dago izena aurrez eman beharrik. 14 eta 20 urte bitarteko Ermuko gazte guztiek parte hartu ahal izango dute eta pertsona bakoitzak nahi duen beste selfie aurkeztu ahal izango du, mugarik gabe. Argazkian lagun-taldea azaltzen bada ere, bakarka parte hartu beharko da.
3. "Selfie" argazki bat edo gehiago atera ahal izango dira eta gizarte sareetara (Instagram eta abarretara) altxatu #jaietanratuonak hashtag-a erabiliz. Argazki bakoitzari aipamen bat erantsiko zaio, **zure ustez tratu onak zer diren** azalduz edo adieraziz, eta egilea identifikatzeko moduan egongo da. Saria emateko, egilearen nortasuna, adina eta bizilekua egiaztatuko dira.
4. Epaimahaiak, Ermuko Tratu Onen aldeko Elkarteko lau kidek osatua, lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak ikusi ondoren, lehiaketaren helburuari ondoen erantzuten dioten haiek aukeratuko dituzte.
5. Lehiaketatik kanpora geratuko dira eta ez dute parte hartuko, epaimahaikoen ustez lehiaketaren helburua betetzen ez duten argazki, aipamen eta esaldi haiek, edota jarrera edo jokabide iraingarriak erakusten dituztenak.
6. Selfiak igotzeko epea uztailaren 14ko 18:00etan hasiko da eta uztailaren 18an amaituko da, 24:00etan.
7. Epaimahaikoak uztailaren 19an elkartuko dira, arratsaldeko 17:30ean, Emakumeen Topalekuan. Erabakia uztailaren 20an, 19:00etan emango da jakitera, jendaurrean, herriko plazan. Ohiko bitartekoen bidez ere emango da ezagutzera, hau da, elkarte antolatzailearen Facebook-ean eta Ermuko Emakumeen Topalekuan:
<https://www.facebook.com/porlosbuenostratos.ermua?fref=ts>
<https://www.facebook.com/Ermuko-Emakumeen-Topalekua-1603063760010124/?fref=ts>
8. Bi sari egongo dira: lehenengoa, gehienez 60€ko balioa izango duen bazkari edo afari bat egiteko bale bat, Ermuko taberna edo jatetxeetan gastatzeko, diploma egiaztagarri bat eta 60€ko bale bat antolatzaileek adierazitako epean hezkietan eta/edo kultur materialetan gastatzeko. Bigarren saria, gehienez 60€ko balioa izango duen bazkari edo afari bat egiteko bale bat, Ermuko taberna edo jatetxeetan gastatzeko, eta diploma egiaztagarri bat.
9. Lehiaketan parte hartzean partaideek baimena ematen diete antolatzaileei selfieak Facebooken eta beste plataforma digital eta idatzizko euskarrietan (herri-aldizkari eta abarretan) erakusteko, oinarri hauen lehen puntuan adierazitako helburuak hedatzeko erabil ditzaten.
10. Parte hartu ahal izateko, adingabekoek ama, aita edo tutorearen baimena aurkeztu beharko dute. Eredua erantsen da.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak berau arautzen duten oinarriak onartzea dakar. Oinarriaren interpretazioan zalantzarik azaltzen bada, Ermuko Tratu Onen aldeko Elkartek ebaztuko du.

Eranskina: (beharrezkoa, adingabekoa bazara)

ADINGABEKOEI LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA

Ama-/aita-/tutorea-ren Izen-Abizenak: (markatu dagokiona)

.....

NANa/IFZ zkia.

Baimena ematen diot adingabekoa den

(Izen-Abizenak)(r)i,

Ermuko Tratu onen aldeko l. selfien lehiaketan parte hartzeko, eta oinarriak onartuz.

Kontaktatzeko telefonoa:

Egungo helbidea:

Sinadura:

Ermuan, 2016ko(a)ren(e)(a)n.